

KANALAK

Komunikazio kanalak enpresa batean erabiltzen dira produktuaren salmenta hedatzeko, hau da, informazioa partekatzeko, koordinazioa errazteko eta helburuak lortzeko. Azken finean, **barne komunikazioa** (langileen arteko elkarlana), **kanpo komunikazioa** (bezeroekin eta hornitzaileekin harremana izan), estrategia planifikazioa eta arazoak konpontzeko gaitasuna funtsezkoak dira enpresa ondo joateko.

BANAKETA-BIDEAK

Pastilla kaxa elektronikoa gure web orrian <https://pillssave.mystrikingly.com> eros daiteke. Bertan, "produktuak" atalara jotzean, pastilla kaxa erosteko ahalmena izango duzu. Behin eskaera eginda egon, guri iritsiko zaigu eta zure etxera bidaliko dugu **Correos** bidez. Enpresa honen esker, paketearen jarraipena eskuragarri egongo da bakoitzaren mugikorrean.



Pastilla-kaxa **Amazonen** ere eros daiteke bezero gehiago lortzeko, gehienek gauzak erosterakoan Amazonen begiratzen dugulako. Gainera, lehen esan bezala, gure produktua zure etxera programatuta iritsiko da Correos enpresaren bidez.

KOMUNIKAZIO-BIDEAK



1000€ko kanpaina publicitaria egingo dugu, Euskal Irratian. Bertan, irakargi bat jarriko dugu, bezeroen atentzioa pizteko. Iragarkia 15 egunez egongo da irratian, eta 75€ balioko du egunero, hau da, guztira 15 egunak 1150 € izango dira. Iragarkiari esker, gure balio proposamena hedatuko da eta bezeroak handituko dira.

Bestetik, sare sozialetan kontuak irekiko ditugu Instagramen eta **Facebook-en @pillssave**. Kontu honen bidez zalantzak argituko ditugu, mezuak bidali dezaketelako bezeroek bai Instagramen bai Facebook-en. Gainera, jendearen argazkiak igoko ditugu, tutorialak egingo ditugu... Hala ere, Facebook-en Instagramen baino informazio gehiago aurkeztuko dugu, Instagramen bakarrik Reels eta publikazio dotoreak igoko ditugulako, bakarrik bezeroen arreta pizteko asmoz. Behin eroslea interesatuta egon, Facebook-en sartuko da informazio guztia irakurtzeko.



Informazioa eta zalantzak gure web orrian argitu arren, korreo elektronikoa izango dugu eskuragarri (pillssave@gmail.com) zalantza zehatzagoak argitzeko.